

Haritz Sarriegui Echeberriak bere tesia irakurri du

2013/07/10

Uztailaren 9an, goizeko 11:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Haritz Sarriegui Echeberria Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Pedro Biteri eta Arana Egoitzeko Aula Magnan. Tesiaren izenburua Calphad Coupled Microstructure Modelling of the AZ91E Mg Alloy Gravity Die Casting eta tesi zuzendariak: Iñaki Hurtado, Konrad Weiss. Gainera CUM LAUDE gai kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Juan José De Damborenea González (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Klaus Hack (RWTH Aachen / GTT-Technologies) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Christoph Honsel (RWP GmbH) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Zigor Azpilgain Balerdi (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Idazkaria: Nuria Herrero Dorca (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.

AZ91E Mg aleazioaren grabitate bidezko galdaketatik sorturiko mikroegitura deskribatzeko eredua proposatu da. Horretarako, Calphada akoplatutako hazi ekiaxikoen hazketa kuantitatiboki kalkulatu da, makro- eta mikroeskalak kontutan hartuz. Konputazio termodinamikoak fase eta elementu anitzeko sistemak kalkulatzeko ahalbidetzen du. Hozte kurba zehatzagoak, azken ale tamaina ertaina, adar sekundarioen tartea, fase banaketa eta berauen konposizioa eta askatutako bero sorra lortuz emaitza modura.



Haritz Sarriegui Echeberria tesia